

## BESTELAKO XEDAPENAK

### ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

## 1846

*EBAZPENA, 2019ko martxoaren 14koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita gazteak itzultzeko laguntzen 2018ko deialdiaren babesean emandako dirulaguntzen onuradunen zerrenda. Laguntza horien helburua da gazteak Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietan kontratatzea, eta deialdia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak onartu zuen erabaki bidez, 2017ko abenduaren 28an egindako bileran.*

Dirulaguntza publikoak ematerakoan, publikotasun printzipioa bete beharra dago. Hori dela eta, gazteak itzultzeko laguntzen deialdiaren 8.9 artikuluan ezartzen da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dela deialdi horren babesean emandako laguntzen onuradun diren erakundeen zerrenda, diru-zenbatekoak zehaztuta, bai eta emandako dirulaguntza aldatu zaien erakundeen zerrenda ere. Horretaz gain, ebazpena berariaz eta banan-banan era jakinaraziko da. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak onartu zuen deialdi hori, erabaki bidez, 2017ko abenduaren 28an egindako bileran, eta 2017ko abenduaren 29ko EHAAn argitaratu zen (247. zenbakian), Lanbideko zuzendari nagusiaren 2017ko abenduaren 28ko Ebazpenaren bidez. Horrenbestez, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea erakunde eta pertsona onuradunen zerrenda, 2018ko laguntza-deialdi honi dagokiona: gazteak Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietan kontratatzekeo xedez gazteak itzultzeko laguntzen 2018ko deialdia. Ebazpen honen eranskinean azaltzen da zerrenda hori.

Bigarrena.– Berariaz jakinaraztea deialdi honen babesean diruz laguntzen diren kontratuak EGF Europako Gizarte Funtzaren laguntzaz finantza daitezkeela, EAEko 2014-2020 aldirako EGF Programa Eragilearen esparruan edo 2014-2020 aldirako Gazte Enplegurako Programa Eragilearen esparruan.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 14a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,  
JUAN JOSE BORJA BELANDIA FRADEJAS.

2019ko apirilaren 11, osteguna

## ERANSKINA

## KONTRATAZIORAKO DIRULAGUNTZAK

Espediente zk.	Erakundea	Hasieran batean emandako diru-laguntza
2018/REJUV/000001	Amenábar Grupo Promotor e Inmobiliario, S.L.	13.200,00 €
2018/REJUV/000002	Inteligencia Corporativa y Seguridad, S.L.	12.000,00 €
2018/REJUV/000004	De Facto Public Relations, S.L.	12.000,00 €
2018/REJUV/000005	Ingeteam Power Technology, S.A.	12.000,00 €
2018/REJUV/000007	Naiz Bespoke Technologies S.L.	12.000,00 €
2018/REJUV/000010	Conservas Ortiz, S.A.	12.000,00 €

## JOAN-ETORRIETAKO GASTUETARAKO DIRULAGUNTZAK

Espediente zk.	Itzultako pertsonaren identifikatzailea	Hasieran batean emandako diru-laguntza
2017/REJUD/000001	***4351**	800,00 €
2017/REJUD/000002	***5006**	150,00 €
2017/CEMP/000003	***8081**	1.000,00 €
2017/CEMP/000004	***0000**	150,00 €
2017/CEMP/000005	***0374**	800,00 €
2017/CEMP/000008	***1202**	150,00 €